



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza

Larunbata
2009-09-12

VIIURTEA 1.774.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Iñigo Altolagirrek atzo aurkeztu zuen erakusketa Aranburu Jauregian. E. EZEIZA

ALTOLAGIRREREN EMOZIOAK ISLATURIK IKUSGAI ARANBURUN

TOLOSA Aranburu Jauregirako egin dituen 19 lanez osaturiko erakusketa zabalduko du gaur, Iñigo Altolagirre margolariak 4

Udaletxeetako krisiaren inguruan solasean

EKONOMIA Krisiaren nondik norakoak eta eskualdeko udaletxeetako egoera aztergai 6-7



Patata tortila lehiaketa egin zuten atzo. E. MAIZ

Kalebeheran festa izango da nagusi asteburuan

ALEGIA Atzo hasi ziren jaiak buruhandiekin; ekitaldi ugari izango dira gaur eta bihar 5



HITZA udako argazki lehiaketa



bidali opor
hauetako
argazkiak!



NORA BIDALI?

tolosaldean@tolosaldekohitza.info helbide elektronikora edo
HITZAren Tolosako edo Leitzako egoitzetara

sari
mundialak





'Eskualdea ezagutu bizikletan' bildumaren azken atala da hau; oraingoan Amezketan, Abaltzisketa eta Orendaingo herriak bisitatuko ditugu; 31,4 kilometroko ibilbidea osatuko dugu.

Amezketan- Abaltzisketa- Orendain

JOXEMI SAIZAR

Tolosaldeko herri guztiak ezagutzeko azken ibilbidea dugu hau. Bederatzi ibilaldietan zehar, eskualdeko 28 herriak bisitatu ditugu 20-25 kilometro inguruko ibilaldietan, batzuk nahiko aldatuak. Leitzaldea hurrengo bildumarako utziko dugu, ibilaldi luzeeagoa baita.

Tolosatik Alegiara

Hain ezaguna egin zaigun bidegorria hartuz Tolosatik Alegiara joango gara eta handik Amezketarako errepidea (GI-2133) hartuko dugu herrian sartu gabe. Aldapa handirik ez dago, baina konturatu gabe altura hartzen joango gara. Bide erdian Ugarte auzoa topatuko dugu, bere Andra Mari eliza eta frontoiarekin. Amezketan (bariantea ere badute orain sartzeko plaza berritua, bi frontoiak, udale-

Abaltzisketara joateko errepidean (GI-2133) aldapa dezente aurkituko duzue

Abaltzisketatik Orendain aldera gora-behera handirik ez dago, paisaia ederra bai ordea

txea eta aurrerago joanda San Bartolome eliza eta gorago San Martin ermita bisita ditzakegu.


Pilotari onak atera dira herri honetatik: Joxean Tolosa eskuz eta Altuna anaiak erremontean. Baita bertsolariak ere (Fernando Amezketarra eta Bixente Gorostidi) eta komunikabideetako pertsonaiak



Abaltzisketako udaletxetik igaroko gara ibilbide honetan. JOXEMI SAIZAR

ere (Pello Zabala, Antton Karrera eta Jose Mari Otermin).

Herriaren erditik abiatzen da Abaltzisketara joateko errepidea (GI-2133). Aldapa dezente aurkituko duzue. Abaltzisketatik Larraitzera bi kilometro daude, aldapa handirik gabe, bertako ermita eta tabernak bisitatu nahi ezker. Abaltzisketan bertan San Juan eliza, frontoia eta udaletxea ikus daitezke. Handik Orendain aldera gora-behera handirik ez dago (GI-3670), bai ordea paisaia ederra bi aldeetara, Tolosaldera eta Goierrri aldera.



Orendainen ere bada zer ikusia

Orendainen bertan udaletxe neoklasikoa, pilotaleku berria, Eskolapioetako etxea (*La fuga de Segovia* filma ezagunean erabilia) eta Jasokundeko Andra Mari eliza daude.

Handik Alegiara jaitsiera aldatuak duzue eta Tolosaraino zelaia.

Udazken honetan jarrai ezazue zuen bizikletaz gure inguruak ezagutzen, hurrengo uda bitarte herdoiltzen eta hautsa hartzen utzi gabe.

Aitor Agirrebarrena euskal presoak Espainiaren esku utzi du Frantziak

Lizartza » 23 urteko espetxe-zigorra betearazteko eskatu du Espainiaratzea Auzitegi Nazionalak.

ERREDAKZIOA

Frantziak Aitor Agirrebarrena Beldarrain euskal presoak Espainiaren esku utzi zuen pasa den asteazkenean. Estraditazioa Auzitegi Nazionalako Zigor Arloko Lehen Aretoak eskatu zuen Agirrebarrenari ezarritako 23 urteko espetxe-zigorra betearazteko. Hala, Val de Reuil kartzelatik Soto del Real kartzelara eraman dute lizartza.

2002ko ekainaren 4an atxilotu zuen Frantziako polizia Agirrebarrena Aubusson (Frantzia), polizia kontrol batean.

Agirrebarrenari ETako *Tototo* taldeko kide izatea eta 2000. urtean bi guardia zibilen eta Jose Luis Lopez de la Calle kazetariaren hilketan egotzen dizkiote. Halaber, urte berean, Agredako (Soria, Espainia) Guardia Zibilen kuartelaren aurkako atentua ere egotzen diote; bertan auto bonba leherarazi zuten. Hain zuzen, azken ekintza honengatik Espainiako Soto del Real kartzelan egon zen lizartza 2005eko azaroaren 23tik 2006ko azaroaren 29ra.

Laburrak

Idazketa tailerra antolatu du Ereite elkarteak

TOLOSA • Ereite elkarteak idazketa-tailerraren edizio berri bat antolatu du, gaztelaniaz. Asteazkenean izango da 18:00etatik 20:00etara Ereitek Tolosan duen egoitzan bertan. Ikastaroak 3 hilabeteko iraupena izango du. Lehen eguna heldu den asteazkenean, hilak 16, izango da. Interesatuak 685 750561 telefono zenbakira deizake. Izen-ematearen prezioa 15 eurokoa da.

Zinema eskaintza zabaldu asteburuan Leidorren

TOLOSA • Astebururako zinema emanaldi zabaldu antolatu dute Leidor aretoan. Gaur bertan *Arrastrame al infierno* filma emango dute, bi saiotan, 19:30ean eta 22:30ean, hain zuzen ere. Bihar, *Harry Potter y el misterio del principe* haurrentzako filma izango da ikusgai 17:00etako saioan. Ondoren, *El primer día del resto de tu vida* filma emango dute 19:30ean eta 22:00etan eta etzi, astelehenean, (ikuslearen Eguna) 20:30ean.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95



San Pedroko trainerua aurreko igandean Kontxako banderaren lehen jardunaldian. HITZA

Beraien aukerak baliatuko dituzte bihar Kontxan, arraunlari billabonatarrek

Villabona » San Pedroko traineruarekin lehiatuko dira Larrarte, Ansa eta Lopetegi eta irabazteko asmoz joango dira.

IMANOLO GARCIA

Kontxako Banderaren bigarren jardunaldia izango da jokoan bihar eta bertan parte hartuko dute Villabonako hiru arraunlarik San Pedroko traineruan. Aurreko igandean hirugarren denbora onena egin zuten, Kaikutik hamar segundora eta Castrotik bost segundora. Bihar, beraz, ohorezko txandan izango dira San Pedrokoak. Joseba Larrarte arraunlari billabonatarrek azaldu duenez, Kontxako Bandera lortzeko «oraindik aukerekin gaude».

Biharko estropadan, Larrarte-ekin batera Ander Ansa eta Gari Lopetegi billabonatarrek ariko dira. Klubean ere beste herriko bat dago, Eneko Larrarte. Igandean estropada «oso ona» egin zutela dio Joseba Larrartek: «Bukaeran galdu genituen hiru bat segundo galdu behar ez genituenak, baina

balantzea oso positiboa da». Galdutako segundo horiek bai Beraien traineruak bai Castrok egin-dako estrategiaren ondorio direla ikusten du Larrartek: «Castro-ekin jarri ginen irla parean borrokan eta harrapatu egin genuen. Laugarren kaletik gindoazen eta hor jarraitu beharrean, bai Castroko patrioiak eta baita gureak ere lehenengo kale aldera jo zuten». Haizearen norabidearen aurka egin zuten eta metro gehiago ere egin zituzten. Horren ondorioz Kaikutik segundo apur batzuk atera zizkien.

«Zaletasuna piztu egin da»

Zaletuen aldetik Donostian gehiengoak morea zela dio Larrartek: «Arratsaldean buelta bat eman nuen eta gehiengoak more jantzita ikusten zen. Zaletasuna piztu egin da San Pedron». Bihar, estropada ondoren, San Pedron harrera egingo diete arraunlariei. «Bandera irabazita joaten bagara, ospakizuna askoz handiagoa izango da, baina bestela ere badakigu harrera prestatuta daukatela eta kontentuta gaude».

Bandera lortzetik hamar segun-

dora egoteak ez ditu desanimatzen sanpedrotarrak. «Badakigu oso zaila dagoela», dio Larrartek. «Guk sekulako estropada egin beharko genuke, dena ondo egin beharko genuke eta besteek pixka bat huts egin. Aurten estropada pare bat irabazi ditugu hamar segundo baino errenta handiagoarekin eta horregatik aukera ikusten dugu. Badakigu estropada perfektua egin behar dugula. Saiatu beharra daukagu. Gu behintzat irabaztera joango gara».

Biharko estropadan traineru bakoitzari zein kale egokitzen zaion garrantzitsua izango da. Hori eta itsasoa nola topatzen duten. Aste honetan ez dute prestaketa berezirik egin, baina errepasatu dute lehen jardunaldiko estropada. «Ikusi dugu akatsak non egin genituen. Badakigu ere estropada ikusita gu baino askoz gehiago ez direla besteak eta gerra emateak badaukagula eta ziur gaude borrokatu egin behar dugula», zehazten du arraunlari billabonatarrek. Emoziarik ez da faltako behintzat bihar Kontxako badian eta agian eskualdeko arraunlariak protagonista nagusi izango dira.



Gazteen Egunetik mozorro gauera

ZIZURKIL » Gazteen Eguna izan zen atzokoan Elbarrenako jaietan. Besteak beste, bazkarian 85 lagun elkartu ziren. Gaurkoan, goizean haurrei eta gurasoei zuzendutako ekitaldiak izango dira. Bazkari herrikoia ere egingo dute eta ondoren blusen arteko pentatloia. Asto karrera ere izango da arratsaldean eta ondoren mozorro gaua. I. GARCIA

Dantza ikastaroen ordutegi berriak zehaztu dituzte

Anoeta » Lau adin-tarte izango dira eta ikastaroak urriaren 6ko astean hasiko dira; saioak kiroldegian egingo dira.

ERREDAKZIOA

Dantza taldearen ikasturte berri-rako ordutegiak zehaztu dituzte. Ikastaroak urriaren 6ko astean hasiko dira. HH1 eta HH2koek asteartean dute, 17:15etik 18:15era; HH3, LH1, LH2 eta LH3koak asteazkenetan, 17:15etik 18:15era; LH4, LH5, LH6 eta DBH1ekoak ostegunetan, 17:15etik 18:15era; helduek (14 urtetikurrera) ostiraletan, 19:00etatik 20:30era.

Saioak kiroldegian dira eta hila-beteko epea dago doan probatze-ko. Izena emateko epea hilaren 18a arte da, udaletxean edo kirolde-gian. HH1 eta HH2ko taldearen inguruan antolatzaileek diotenez, «aukera paregabea dute jolasaren bidez dantza ikasteko, eta baita erritmoa, gorputzaren mugimen-dua, koordinazioa, harremanak... lantzeko ere».

Euskal Jaiaren bazkarirako txartelak salgai daude tabernetan

Anoeta » Festa eguna antolatzeko hurrengo bilera udaletxean izango da, datorren asteartean 18:00etan.

ERREDAKZIOA

Euskal Jaiaren 11n izango da eta bazkarirako txartelak salgai daude jada Itzuli, Arkupe, Haizea, Laia eta Buztina tabernetan. Txartelen prezioa 20 eurokoa da, 15 euro langabetu eta ikasleentzat eta 10 euro 8 urtez beherako umeentzat. Txartelak hartzeko azken eguna urriaren 4a izango da. Txartelak soberan geldituz gero, salgai egongo dira urriaren 11n bertan azokan, baina 7 euro garestiago.

Bestalde, egun horretako antolaketa arduaren paperak jarrita daude jada Itzulini, jendea izena ematen joan dadin.

Eguna antolatzeko hurrengo bilera datorren asteartean izango da, hilak 15, 18:00etan udaletxean. Herriko talde guztiei eta herritar orori deitzen diete Udaletik bertan parte hartzera.

NOIZ ETA NOLA AURKEZTU

Lanaren 11. jardunaldia egunaren 11.00etan hasiko da. 11.00etan hasiko da. 11.00etan hasiko da.

Garaiak: 11.00etan hasiko da. 11.00etan hasiko da.

Garaiak: 11.00etan hasiko da. 11.00etan hasiko da.

MODALITATEAK ETA HIZKUNTZA

11.00etan hasiko da. 11.00etan hasiko da.

SARIAK

LORRIK 10 URTEEN ARDURA

LORRIK 10 URTEEN ARDURA

LORRIK 10 URTEEN ARDURA

SARI BARRAKETA

11.00etan hasiko da. 11.00etan hasiko da.

II. IBARRA GALTZA KOMIKI LEHAKETA 2009

Altolagirren margolanak ikusgai dira gaurtik

Kultura » Aranburu Jauregirako espreski egindako 19 artelan bildu ditu Uztegiako artistak zabaldu berri den erakusketa honetan.

ESTI EZEIZA

Atzotik, Iñigo Altolagirre margolariaren lanak ikusteko aukera dago Aranburu Jauregian. Iazko abenduan hasi zen prestatzen erakusketa, eta denera, 19 lanek osatzen dute bilduma. Margolan abstraktuak, izadiarekin eta naturarekin lotura dute askok. Une edo garai zehatz bakoitzean artistak bizi dituen emozioak islatzen dira beraietan.

Atzo inauguratu zen erakusketa eta urriaren 31ra arte ikusgai egongo da. Bisita ordutegia ondorengoa da: 17:30etik 20:30era, jaiegun eta astelehenetan izan ezik.

Urte asko daramatza Altolagirrek, Araitz bailaren kokatuta dagoen Uztegi herrian bizitzen. Hori dela eta, Tolosarekin lotura handia du artistak, hona etortzeko ohitura handia baitu. Berak atzo aitortu zuenez, aspalditik zuen Tolosan bere lanak erakusteko gogoia, eta orain suertatu zaio aukera. Aranburu Jauregirako, espreski egin ditu bere azken obrak. Erakustokiaren tamaina ikusita, margolan handiak egin ditu oraingoan. Bere hitzetan, «askatasun handia» izan du lana gauzatzeko garaian. Hala ere, horma batzuk hutsik utzi nahi izan ditu, «lanek arnasa har dezaten, eta bakoitzak bere espazio propioa eduki dezan».

Altolagirrek 1977an jarri zituen bere lehendabiziko lanak ikusgai, eta ordutik hainbat eta hainbat erakusketa egin ditu. Ereite eta Les Faiseurs de la Belle elkarteek kulturarteko ohiturak sustatzeko helburuz 2007an egindako Ipuinartean II proiektuan parte hartu zuen. Hala, bere lanetako bat ikus-

gai izan zen duela bi urte Tolosako Aranburu Jauregian.

19 lanez osatutako bilduma honi ez dio izenbururik jarri nahi izan artistak. Margolan guztiak latex eta pigmentuak erabiliz egin ditu. Aitortu zuen atzo Altolagirrek teknika berria dela hau berarentzat, eta honekin, lanei, textura desberdina ematea lortu du. Dena den, bildumako bi lan, uda honetan, Baionako Kalostrapegalerian ipini duen erakusketan ere ikusi ahal izan dira.

Abstrakzioaren munduan mugitzen da Uztegiako, eta ikuslearen imajinarioaren esku uzten du, artelan bakoitzaren esanahia. Izadiarekin eta naturarekin lotura dute margoek. Hauek eraikitzeko, lur koloreak erabiltzen ditu: berdeak, laranja, horiak... Duten bizitasunagatik arreta deitzen dute lanei.

Askatasuna eta sena oso elementu garrantzitsuak izan dira Altolagirrentzat proiektu honetan. Berak azaldu bezala, artelan guztiek abiapuntu bera dute, baina une bakoitzean bizitako emozioek desberdin egiten ditu, bide ezberdinetatik eraman baitute artista. «Paisaia pertsonalak islatzen dituzte margoek» dio Iñigo Altolagirrek. Ikusleak zenbait lanetan, figura edo elementu zehatz batzuk ikusi arren, hauek bakoitzaren begiratzeko moduren baitan daude, artistak ez baitu inolako elementu figuratiborik erabili nahi izan bilduma honetan. Dena den, bisitariak, exotismoa, arkitektura zantzuak... aurkituko ditu ziurrenik Aranburu Jauregira joaten denean.



Atzo aurkeztu zuen bere erakusketa berria Iñigo Altolagirrek, Aranburu Jauregian. E. EZEIZA



Abiapuntu bera erabiliz, bi margolan gauzatu ditu Uztegiako margolariak. E. EZEIZA



19 lanek osatzen dute bilduma, eta hau da bere ustetan, indartsuenetako bat. E. EZEIZA

2008E PLANAREN MEMENTOIA DA CITROËN MEMENTOIA DA



CITROËN C4
HDi 11.600€tik



CITROËN C3 | C1 GAMA
7.300€tik | 6.200€tik



CITROËN XSARA PICASSO
HDi 12.800€tik



CITROËN C4 SEDÁN
HDi 15.800€tik

CITROËN LANGABEZI ETA GAINERA %0ko MATRIKULAZIO ZERGA:
KONFIDANTZAZKO PLANA: ESTALDURA OPARI C1 | C2HDi | C3HDi | C4HDi 90/110 FAP/110 CMP FAP



Laburrak

Gripearen kontrako txertoa astelehenetik aurrera

AMEZKETA ■ Gripearen aurkako txertoa hilaren 14etik aurrera hartu ahal izango da Amezketa Osasun Zentroan. 65 urtetik gorakoentzat eta gaixotasun kronikoak dituztenentzat txerto hau, dohanik izango da. Astelehenetik ostiralera gripearen aurkako txertoa hartzeko aukera izango duite amezketarrek, beraz, baina aldeaz aurretik txanda hartu beharko da 943 65 32 12 telefono zenbakira deituz. Txertoa hartzeko azken eguna urriaren 30a izango da.

Egur-taila ikastaroa antolatuta nahian

AMEZKETA ■ Egur taila ikastaroa antolatuta nahi dute eta interesatuek telefono zenbaki honetara deitu beharko dute: 688 631 952 (Xatur). Bilerak hilaren 28an 15:00etan egingo dute eta bertan tailarako behar den tresneriaz (hauen prezioak), ordutegia, egunak, eta ikastaroaren kostuaz hitz egingo dute.

60 urtetik gorakoentzat zenbait ikastaro

AMEZKETA ■ 60 urtetik gorakoentzat aukera ezberdinak daude: Memoria tailerra urriaren 6an hasiko da, 15:00etatik 16:30 arte. Yoga berriz, urriaren 7an hasiko da eta gimnastika urriaren 14an; azken bi hauek urteroko ordutegia izango dute. Interesatuek telefono zenbaki honetara deitu beharko dute: 688 631 952 (Xatur)

XX. Joxean Tolosa Txapelketako finalerdiak

AMEZKETA ■ Atzo gaueko 22:00etan jokatu ziren Aurrera Saiatz eta Lizartzaren arteko hirugarren partidak. Gaur berriz, Iruztun eta Amezketa arteko lehia izango da ikusgai. Eta honenbestez, aste-buru honetako partidekin finala zein bi herriren artean jokatuko duten argituko da.

Ibarrako Sendi Ekintza elkarteak ezohiko batzara

IBARRA ■ Ibarrako Sendi Ekintza elkarteak ezohiko batzar orokorra egingo du hilaren 18an. Lehen deialdia 19:30ean izango da, eta bigarrena 20:30ean, Sendi Ekintza elkartearen egoitzan (sagardotegian), Ibarrako plazan. Hauek izango dira landuko diren gaiak: Estatutuen berritzea eta bozketa; Zuzendaritza Batzordearen aurkezpena eta bozketa. Batzarrera bertaratzeko garrantzia du, bazkide guztien borondatearen adierazpen organoa batzarra bera baita. Bazkideek bere ordezkaritza beste edozein bazkideri utzi diezaioteko, horretarako, idatziz egin beharko da eta batzarra izan baino 24 ordu lehenago aurkeztu behar-ko zaio batzordeari.

Gaur eta bihar kalean gora eta kalean behera festa giroa nagusi

Alegia ■ Gaur eta bihar ko egitarau oparoa prestatu dute. Ikusteko, kirolerako eta jan-edanerako bada aukera Kalebeheran.

ERREDAKZIOA

Kalebeherako jaiei, atzo iluntzean eman zieten hasiera buruhandiak lagun zituztela. Ondoren, patata tortila lehiaketa, zahagiardoa eta erromeria izan zituzten.

Bertso-pala desafioa

Bezperako ajea kentzeko, 12:30ean Herri Krosa izango da gaur txiki eta helduentzat.

16:00etan, Pala Txapelketako kanporaketa egingo dute eta parte hartu nahi duenak egunean bertan eman beharko du izena. Ondoren, Bertso-pala desafioa egingo dute binaka, bikote bakoitzak botilero bana izango du. Iluntzean, zahagiardoa izango dute eta afaldu os-

tean, erromeria Eneritz eta Edurne trikitilariekin.

Igandean Herri bazkaria

Herriko Dantzari Txikiak emango diete egunari hasiera eta ondoren, eguerdiko 13:00etan, jan edanerako aukera izango dute txakolin eta sardina erreekin. Eta tripa betetzeko jarraitzeko 15:00etan herri bazkaria izango da.

17:00etan, Umeen Pilota Txapelketako Finalak jokatu dira. Infantiletan, Xuar Jauregi - Haritz Zabala, Iurgi Goñi - Manex Karre-raren aurka. Alebinetan, Gorka Al-tuna eta Andoni Agirrezabala, Aratz Irazustabarrena eta Beñat Lasaren aurka. Azken partidua benjaminen artekoa izango da, Lander Karrera eta Oier Goikot-xea, Eñaut Zabala eta Eneko Ont-saloren aurka.

Festei amaiera emateko, 20:30ean zahagiardoa eta ondoren, 22:00ak aldera, Mus Txapel-keta jokatu dute.



Atzo buruhandiekin festei hasiera ematen. E. MAIZ

EGITARAUA

Gaur

■ **12:30.** Herri krosa. Txiki eta helduentzat.

■ **16:00.** Pala Txapelketako kanporaketa. Ondoren, Bertso-pala desafioa: Iker Iriarte - Aitzol Barandiaran, Unai Muñoa - Mikel Artolaren aurka. Botileroak Jokin Uranga eta Imanol Irazustabarrena.

■ **20:30.** Zahagiardoa.

■ **22:30.** Bertso saioa: Aitzol Barandiaran, Jokin Uranga, Mikel Artola eta Unai Muñoarekin. Gaiak jartzen Iker Iriarte.

■ **Ondoren.** Erromeria Eneritz eta Edurneekin.

Bihar

■ **12:30.** Alegiako dantzari txikien saioa.

■ **13:00.** Txakolina sardina erreekin.

■ **15:00.** Herri bazkaria.

■ **15:00.** Herri

■ **17:00.** Umeen Pilota Txapelketako Finalak. Ondoren, Pala Txapelketako finala.

■ **20:30.** Zahagiardoa.

■ **22:00.** Mus Txapelketa.

Kultura eta kirol eskaintzetan izena emateko aukera Alegian

Alegia ■ Astelehenetik hasi eta iraile bukaera bitarte izena emateko epea zabalik izango da Kultur eta Kirol Etxean.

ERREDAKZIOA

Alegiako Iñaxio Begiristain kultur eta kirol etxean hainbat ikastaro antolatuta dituzte. Izena emateko epea astelehenean irekitzen da eta iraile bukatur bitartean 10:00etatik 13:00era eta 15:00etatik 21:00ak bitartean egin ahaliko da Kultur eta

Kirol Etxean bertan. Kirol ikastaroak, urriaren lehen, eskulernetakoak urriaren 7an eta memoria tailerra azaroaren 3an hasiko dira.

Kirol eskaintza

Kirol eskaintzen artean aukeratzeko, aerobick, mantentze soinketa eta hirugarren adinekoen gimnastika daude.

Aerobicka astelehen, asteazken eta ostegunetan izango da arratsaldeko 19:00etatik 20:00ak bitarte. Mantentze soinketaren kasuan, astelehen, asteazken eta ostiralak izango dira, 15:00etatik 16:00tara.

Azkenik, hirugarren adinekoen gimnastika astelehen, asteazken eta ostiralean izango da 11:00etan hasi eta 12:00ak arte.

Antzerki taldea berriz martxan

Herriko Antzerki Taldea berriro ere martxan izango da urria hastearrekin batera. Urriaren hasi eta ikasturte osoa iraungo du erronka berri honek. Bertarako deia, antzerki munduan sekula ibili gabeko herriarrei egiten zaie, baina baita, lehendik ibiliak direnei ere. Hasieran tailer bat egingo dute irudimena, ahozkoasuna, espresioa,

gorputzaren lanketa... jorratzeko. Gero pixkanaka-pixkanaka, taldekideak antzezpenaren munduan murgiltzen joango dira. Ordutegia, parte-hartzaileen arabera erabakiko da.

Eskulanak, asteazkenetan egingo dituzte goizeko 10:00etatik 12:00ak bitarte.

Memoria tailerra 11:00etatik 12:00etara izango da eta honetarako jarritako eguna asteartea da. Lehen aipatu bezala, ikastaro honetan hasleko azaroak 3ra arte itxaron beharko da.

Ikastaro hauetan izena ematen duenak, nahiz eta ez bertaratu, ikastaroak irauten duen epe osoa ordaindu beharko du. Informazio gehiago nahi izanez gero, Kultur Etxean bertan eskuratzeko aukera izango da.

@ X. HITZA ARGAZKI

LEHIAKETA. Asteartetik larunbatera bitarte Hitzak bere lehiaketara heltzen diren argazkiak argitaratuko ditu. Horretaz gain, gure webgunean ikusgai daude orain arte heldu diren guztiak. Paisaiak, eraikuntza ikusgarriak, beste herrialdeetako ohiturak, mendiak, itsasoa... denetarik topa daiteke argazki hauetan. Ez egin duda eta bidali zurea ere. Sari interesgarria eta potoloak daude aukeran. Irailaren 17ra arte duzu horretarako aukera.

www.tolosaldekohitza.info

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

UDALETXEAK ETA KRISIA

Ez da erraza bat-batean udaletxeek krisia nola bizi duten azaltzea. Gai serioa da, eta ulertzeko ez hain erraza. Ulemenerako ordea, zuriak eta beltzak baino gehiago laguntzen dute koloreek.

ASIERIMAZ

Pirritxeekin eta Porrotxekin behin harriturik gelditu nintzen: aurkezpen serio batean, jantziak egiten dituen idazle bat kolorea eta umorea erabiliz deskribatu baitzuten. Kostata, baina harrapatu nuen.

Idazleak ordea, ondoren gehiago harritu ninduen: bere itzalarekin hitz egiten baitzuen. Orduan ez nuen ulertu baina duela hiru egun bai.

Itzalarekin krisiaz hitz egiten

Eguzkia egiten zuen eta han zegoen lanpetuta parkearen ondoan. Nire itzala ez zen, baina itzal bat zen, eta une hartan niretzat hori nahikoa zen.

Itzala: Has gaitzezen. Esan gaia?
Kazetaria: Udaletxeek bizi duten krisia hitzetik hortzera dabil eta

erreportaje bat egin nahiko nuke egunkarirako.

I: Negar asko egiten ari dira baina krisia denek daukate. Udalak nora doa negarrez? Zerga bilketa jaitsi baldin bada, denentzat jaitsi da, baita Diputazioarentzat eta Jaur-laritzarentzat ere.

K: Baina udalek kezkatu egoteko arrazoi handiak dituzte. 2009ko aurrekontuak egiterako garaian, Foru Aldundiak diru kopuru bat eskaini zien: Udal Foru Fondoak deitzen dena. Aurrekontuak diru hori kontuan hartuta osatu zituzten. Orain ordea, kopuru horiez dutela jasoko esan die Aldunditik, ez behintzat bere osotasunean: %24,4 gutxiago. Nola borilduko dituzte zenbakiak? Gaur bost emango dizkizut esan eta bihar berriz bi...

I: Mesede! Zuk galderak bakarrik

egin eta ez pentsatu gehiegi. Has gaitzezen taxuz. Bat: nora doa zuk ordaintzen dituzun zergak? Nola banatzen dituzte?

K: Lan hau ez banu egin beharko, niri bost.

I: Ez haserretu eta entzun. Bi gauza dira garrantzitsuak: Nora doa ordaintzen ditugun zergak? Eta garaiko krisi honetan, zer gertatu da zerga-bilketa eta itzulketekin?

K: Guztion zergak hortik banatzen dituzte. Errekaudazioari dagokionez, aurtun jaitsi egin omen da. Itzulketen kontua ez dakit, niri ordaintzea tokatu zait eta.

I: Zergaitundiak, hau da, kontzertu ekonomikoaren arabera diputazioak jasotzen dituen zergak...

K: Euskal Autonomia Erkidegoko kontzertu ekonomiko ospetsu hori?

I: Ahaztu esana: utzi galderak eta entzun bakarrik egin. Ea ba: Nora doa denon dirua? Udalgidaren arabera, hau da, Diputazioaren datu ofizialak ikusten baldin badituzu, zergen bidez 2008an 4.129 milioi euro bildu ziren. Pentsatu zenbat diru den hori. Hori jaso zu-

ten. Ondoren, bildutakoa banatu egin behar izaten da. Baina nola? Hau da garrantzitsua: kopuru horretatik %12,8 estatu espainiarrentzat doa kupo bidez: defentsa, erregea...

K: Aireportuak ere hor sartzen dira.

I: Bai, baina kopurua alderatzea besterik ez duzu. Esan bezala, estatuarentzat %12a doa. Eusko Jaur-laritzari %63,1 ematen zaió.

K: Hor barnean Ertzaintza sartzen da, ezta?

I: Bai. Iaz bildutakoaren arabera, 15 milioi euro jaso zituen.

K: Segurtasunak ez du preziorik.

I: Ari al zara kontuak egiten?

K: 63,12... Segi lasai.

I: Diputazioa bera %14,3 arekin gelditzen bada, zer gelditzen zaigu? Udaletxeak. Pentsa, Gipuzkoako udaletxe guztien artean haserako zenbaki haren %9,8a bakarrik banatu zuten 2008an.

K: Urte gogorra izan zela ez da ahaztu behar.

I: Horrek ez dauka inongo loturarik. Urtez-urteko datu ofizialak publikoak dira. Urteetan zehar

%10etik gora ia inoiz ez dute jaso udalek.

K: Esan liteke beraz, udalen krisia ez dela gaurko albistea.

I: Hemendik bi ondorio ateratzen ditut nik. Bata: Udalei mirariak eskatzea alferrik dela. Herritarren-gandik gertuen nola dauden, dena konpontzea eskatzen zaie, baina horretarako ez zaizkie baliabiderik eskaintzen. Bigarrena: hau konpontzeko sustraietara joan beharra dagoela.

K: Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu nagusiak, Markel Olano, hori esan du duela gutxi. Hau aspirina batekin ez dela konpontzen, sakoneko arazoa dela.

I: Eta zein izan da bere proposamena?

K: Nik galdetu. Zuk erantzun.

I: Udalen diru falta gaitz kronikoa da. Urte joan urtea etorri, Foru Fondoaren bidez, bildutakoaren %10a baino gutxiago jasotzen dute. Anai txikia bezala, beti besteren beharrean. Zergatik ez dira udalak benetan bultzatzen? Zergatik ez baliabide gehiago eman? Honi buelta eman nahi baldin ba-

» TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO UDALETXEAK

1. Biztanle kopurua (Gipuzkoan 2007ko datuak/Nafarroan 2008koak). 2. Aurrekontuak osatzeko 2009ko Udal Foru Fondoak (Gipuzkoan une honetan kopuru honi %24,4 kendu behar diote udalek). 3. Iazko Udal Foru Fondoaren likidazioa (Bi urtetan itzultzeko).



Abaltzisketa

- 1.304.
- 2.258.050 euro.
3. -30.843,94 euro.



Aduna

- 1.370.
- 2.303.160 euro.
3. -36.769,69 euro.



Albiztur

- 1.302.
- 2.257.380 euro.
3. -30.538,34 euro.



Alegia

- 1.1.687.
- 2.1.046.660 euro.
3. -126.476,01 euro.



Alkiza

- 1.322.
- 2.920.600 euro.
3. -32.899,31 euro.



Altzo

- 1.379.
- 2.305.170 euro.
3. -35.608,13 euro.



Amezketeta

- 1.954.
- 2.621.810 euro.
3. -77.547,80 euro.



Anoeta

- 1.1.787.
- 2.1.113.630 euro.
3. -135.313,35 euro.



Areso

- 1.282.
- 2.77.872 euro (ohiko transfer.)
3. Lau urterako plana.



Asteasu

- 1.1.456.
- 2.920.570 euro.
3. -108.163,83 euro.



Baliarrain

- 1.91.
- 2.140.860 euro.
3. -17.095,12 euro.



Belauntza

- 1.306.
- 2.263.690 euro.
3. -31.594,47 euro.



Berastegi

- 1.1.003.
- 2.639.830 euro.
3. -78.279,81 euro.



Berrobi

- 1.587.
- 2.421.110 euro.
3. -51.300,07 euro.



Bidegoian

- 1.483.
- 2.359.770 euro.
3. -42.406,13 euro.

diozu, eman udalei Udal Foru Fondoaren bidez %20a. Zergatik ez da egiten hori?

K: Hor berotu egin zara itzala. Marinadela ezagutzen al duzu? Duela urte batzuk han ibili nintzen oporretan. Interesgarria benetan.

I: Kate motzean loturik nahiago, ezta? Baina espainiar estatuan ez pentsa gauzak hobeto daudenik. Han %6a, 7a edo 8a bakarrik jasozten dute.

K: Nafarroan antzeko zerbaite gertatzen da, ezta? Gobernuak udalei funtzionamendurako oinarritzko laguntza ematen die eta beste guztia inbertsio bidez banatzen du. Hori da: Eusko Jaurilaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak jasotzen duten diru hori, inbertsioetara bideratzen dute ondoren. Azkenean beste bide batetik baina herrietara iristen da.

I: Mixeria bat eta eurek nahi dutenerako bakarrik.

K: Itzala... hor pixka bat harrapatu egin zaitut.

I: Jaurilaritzak, diputazioek eta udalek zer gastatu behar duten Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak erabakitzen du, EAEn, Lurralde Historikoen Lege ospetsua kontuan hartuta. Ba al dakizu norzuz osatzen duten Kontseilu hori? Nik esango dizut. Jaurilaritzatik 3 ordezkari joaten dira, Diputazio

bakoitzetik bana eta udaletatik? Udaletatik inorez ez. Gezurra, azken urte hauetan ordezkari bat joaten hasi da, Eudeleko lehendakaria.

K: Baina berak bakarrik zer egin behar du?

I: Hori da Udalen erabakitze gaitasun ezaren gakoa.

K: *En fin...* hau dena oso ongi dago itzala, baina, gaia udaletxeak eta krisia zen.

I: Bigarren gauza garrantzitsua.

K: Ahaztuta nengoen bi zirela gauza garrantzitsuak.

I: Zu zara kazetaria. Zein da bigarren galdera?

K: Ea ba... eta krisi garai honetan, zer gertatu da zerga bilketa eta itzulketekin? Horrela zen, ezta?

I: Hori da bigarren gauza garrantzitsua. Diputazioak 2009ko uztailaren 31n emandako datu ofizialen arabera, abuztukoak oraindik ez dituzte argitaratu, Pertsona Fisikoen Errenta Zergan...

K: Geldi, geldi... zer da hori?

I: Zu zara hori. Datu horien arabera errekaudazioa iaz baino %10 gutxiagokoa izan da. Sozietate zerga berriz %24 jaitsi da. Hau da, enpresatik iaz baino diru gutxiago bildu da aurten.

K: Ez al zuten bi euskal alderdi politikok hori aldatzea hitzartu. Gehiengo erabaki baldin bazu-

ten, demokraziaren arabera hor ez dago ezer esaterik.

I: Bai. Tipoa jaiste erabaki zuten. Baina enpresak gutxiago irabazten ari direlako?

K: Garai honetan gaizki pentsatzen hasi behar al dugu? Nekatzen ere hasia naiz.

I: Tipoa jaisteaz gain hainbat aukera eskaini dizkiete enpresei: atzeramenduak, frakzionamenduak... erraztasun guztiak jarri dizkiete. Hori egiten al dute herritarrekin? Baina ez da hori bakarrik. Itzulketen datu ofizialak ikusten hasten baldin bagara...

K: Akats bat dagoela uste dut hor.

I: Ez, ez da akatsa. Pertsona Fisikoen Errenta Zergan iaz baino %20 gehiago itzuli da.

K: Ez. Beste datuaz ari nintzen, enpresen ingurukoaz.

I: Diputazioaren datu ofizialak dirrela gogoratzen dizut. Eta hori ere ez dago gaizki. Sozietatei dagokienez, 2008an baino %276 gehiago itzuli zaie. Iaz ia 12.000 milioi itzuli zitzairen eta aurten 44.000 milioi itzuli gora. Atera kontuak.

K: Arrazoien bat egongo da.

I: Iluntzen hasi da eta joan beharra daukat.

K: Eta horrela utzi behar al nauzu?

I: Udaletxeak eta krisia. Azken kontu bat.

K: Bota.

I: Zerga-bilketa baxuaren ondorioz, Foru Fondo edo zergetatik udaletxeei iristen zaien dirua, aurreikusitakoa baino %24,4 baxuago da une honetan. Iazko likidazio negatiboa kontuan hartuta...

K: Hori badakit. Utzi niri azaltzen: Udal Foru Fondoaren likidazioa, hasierako aurreikuspena errealtate bilakatzen denean da. Hau da, aurrekontuak egiteko aurreikuspen bat ematen die udalei lehenbizi. Jo dezagun 100 euro direla. Zerga bilketa egiten denean eta dirua kontatzean, 100 horiek igo edo jaitsi egin daitezke, gehiago edo gutxiago bildu baldin badute. Iaz Gipuzkoan negatiboa izan zen likidazioa udal guztientzat.

I: Ez dago gaizki. Pentsa orduan;

2008. urteko Udal Foru Fondoaren likidazio negatiboari, aurtengo aurreikuspenen jaitsiera gehitu behar diote udalek, lehen esan bezala oraingoz %24,4ean kokatu dute jaitsiera hori.

I: Esperantza hori dute. Baina, hala eta guztiz ere, Diputazioaren agiriak %20tik gorakoa izango dela esaten dute. Nire ustez, Diputazioak 4 edo 5 urteko epea eman beharko die Udalei, galera horiek itzultzeko.

K: Nahikoa izango dugu, ezta? Eguzki kolorea ezkututzen ari da eta joan beharko duzu. Ez al zitzaizgun trajea handiegi geldituko?

ARESOKO ETA LEITZAKO UDALEN KASUAK

Nafar udaletxeen funtzionamenduak ez dauka Gipuzkoakoekin zerikusirik. Gobernutik bideratzen den dirua jasotzeko hiru aukera dituzte, eta lege hau urterako, legealdi baterako, izaten da.

Plan honen arabera, urtero udalaren funtzionamendua bermatzeko diru kopuru bat jasotzen dute, ohiko gastuak ordaintzeko bakarrik. Beste bi diru iturrik, Nafarroako Gobernuaren oniritzia behar dute. Alde batetik, tokiko administrazioak eskaini ditzake Udalentzat diru laguntzak: oinarritzko azpiegiturekin zerikusia duten inbertsioak egiteko. Bestetik, udalek proiektuak Gobernuko departamentu desberdinetan aurkezteko aukera dute. Hauek proiektua aztertu ondoren, laguntza eman dezakete edo ez.

Bestalde, zerga errekaudazioan %9 gutxiago jaso baldin badu ere Gobernuak, honek ez du udalen aurrekontuetan eragin zuzenik edukiko, lau urterako egiten baitira legealdiaren hasieran planak.

» TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO UDALETXEAK



Elduain

- 1.227.
- 2.211.300 euro.
- 3.-25.101,40 euro.



Gaztelu

- 1.170.
- 2.187.270 euro.
- 3.-21.426,57 euro.



Hernialde

- 1.334.
- 2.275.670 euro.
- 3.-33.630,87 euro.



Ibarra

- 1.4.273.
- 2.2.663.330 euro.
- 3.-328.614,84 euro.



Izkategieta

- 1.455.
- 2.342.560 euro.
- 3.-41.435,63 euro.



Irura

- 1.1.270.
- 2.785.660 euro.
- 3.-91.183,28 euro.



Larraul

- 1.208.
- 2.201.870 euro.
- 3.-23.672,48 euro.



Leaburu-Txarama

- 1.384.
- 2.309.900 euro.
- 3.-36.814,45 euro.



Leitza

- 1.2.876.
- 1.116.890 euro (ohiko transfe.).
3. Lau urterako plana.



Lizartza

- 1.610.
- 2.425.950 euro.
- 3.-52.073,07 euro.



Orendain

- 1.175.
- 2.193.040 euro.
- 3.-22.826,61 euro.



Oresa

- 1.115.
- 2.154.040 euro.
- 3.-17.205 euro.



Tolosa

- 1.17.888.
- 2.11.145.810 euro.
- 3.-1.366.654,79 euro.



Villabona

- 1.5.750.
- 2.3.599.140 euro.
- 3.-437.737,95 euro.



Zizurkil

- 1.2.790.
- 2.1.729.770 euro.
- 3.-217.414,62 euro.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialdea, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosa.** La Jarako Kultur Astea, 16:00etan txintxon eta mus txapelketak La Jara Extremadurako Etxean.
■ **Villabona.** Elkarteen arteko XV. Isats Gisatuko lehiaketa Errebote plazan 12:00etatik aurrera. XIV. Azoka Berezia ere izango da Errebote plazan Euskal Herriko eta Errioxako produktuekin. 30 postu.

Jaiak

■ **Zizurkil.** Gaurko egitaraua: 10:00etatik 13:00etara guraso eta haurrentzat Jokolandia, ondoren buruhandiak, 13:00etan loreontzien erakusketak eta lehiaketa, 14:30ean herri bazkaria, 17:30ean blusen arteko pentatloia, 19:00etan asto karrera, Mozorro gaua, gaupasa, 24:00etan Traketes musika taldea.

Zinema

■ **Tolosa.** *Arrastrame al infierno* filma Leidor aretoan 19:30ean eta 22:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 673649.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

Toribiok Bisaurinen ateratako argazkia bidali digu Argazki Lehiaketarako, eta Maitek eta Anek, berriz, Gavarnietik ateratakoa. Animatu eta parte hartu, sari interesgarriak lortzeko aukera dago eta!

Gehiago Pirinioetatik



BISAURIN • Pirinioetako gailurretatik ikuspegi paregabeak lor daitezke. Toribio leitzarrak Bisaurin ateratako argazkia da horren adibide argia: «Irailaren 3an, osteguna, Bisaurinen izan nintzen beste hiru lagunekin. Argazki nahiko eleganteak atera zaizkidenez, hitzako beste irakurleekin elkarbanatu nahi izan ditut»,
TORIBIO GEREÑO (LEITZA)

GAVARNIE • Pirinioek paisaia zoragarriez gain, animaliak gertutik ikusteko aukera paregabea eskaintzen dute. Maitek ez zuen aukera hori galdu eta txori hau harrapatu zuen kamerarekin. Hauxe kontatu digu: «2.200 metrota Gavarnie-ko Zirkotik bueltan gontozela lotsagabe lotsagabe inguruan ibili genuen txori hau eta azkenean harkaitzaren gainean atsedean hartzea erabaki zuenean argazkia ateratzea lortu genuen». MAITE BIZKARRONDO



A Agurrak



Zorionak!
Izaskun



Zorionak!
Altzoko Pakita eta Joxe.

Maitatuz gaituzue ase. 50 urte elkarrekin. Zorionak familiaren partetik.



GAVARNIE • Txoriak bai eta marmotak ere bai! Anek gertutik harrapatu zuen hau: «Aurtengo udan Frantziako Pirineotan izan gara eta argazki hau Gavarnie-n ateratakoa da. Marmota pila bat ikusi genituen eta hau haietako bat da. Hartz txiki bat dirudi, besoak sabel gainean dituela!! Leku aproposa da mendia gustatzen zaionarentzat, neguan eskiatzeko aukera ere badago». ANE URRETA